

Batzarrerako dokumentua

Plangintza estrategikoa 2022



Baliabideak handitzea

Esparrua	Helburua	Ekintza	Adierazlea	Urtea
EAEko administrazioak	Proiektu berriak eta berrikuntza laguntza berriak lortzea	Berrikuntza garatu ahal izateko akordioa lortzeko eragin lana, proiektu berriak eta jada egiten diren berrikuntza ildoak diruz lagunduak izan daitezzen.	Gutxienez 3 berrikuntza proiektu garatzeko beharrezko baliabideen % 80 lortzea. Gaur egungo komunikabideen berrikuntza sustatzeko laguntza lerroa sortzea. Poltsa orokorraren %10	2022-23
	Sinatutako akordioaren (2022-24) segimendua egitea	Akordioa betetzeko momentuan bazkideei laguntza eskaintzea	Laguntza behar duten sektoreko komunikabide guztiei laguntza eskaintzea	2022-23
	Berrikuntza proiektuak aurkeztu nahi dituzten komunikabideei laguntza eskaintzea	Laguntza bideak antolatzea	Gutxienez 3 komunikabideri laguntzea	2022-23
	Hekimenek sektore osoaren onura bilatzen duten proiektuak sortu eta kudeatzea	Proiektuak sortu, garatu eta kudeatzeko beharrezko baliabideak eskuratzea	Gutxienez proiektu bat abian jartzea	2022-23
Nafarroako administrazioa	Sektorearen mahaia abian jarri eta kudeatzea	Sektorearen mahaia osatu eta helburuak lortzeko kudeaketa lana egitea	Sektore osoarentzat aparteko baliabideak eskuratzea eta onuragarria izango den ekitaldi edo jardunaldi bat antolatzea	2022

Esparrua	Helburua	Ekintza	Adierazlea	Urtea
Espainiako administrazioa	Finantzazio aukerak eta lege egitasmoak arakatzea	Espainiako administrazioak gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen duten komunikabideak laguntzeko biderik ote dagoen aztertzea. 5G sistemaren hedapen asmoak ezagutzea eta sistemaren eragina komunikabideetan aztertzea	Azterketa lana bazkideei aurkeztea Hedapen asmoak eta sistemaren eragina bazkideei jakinaraztea	2022-23
Frantziako administrazioa	Finantzazio aukerak eta lege egitasmoak arakatzea	“Euskal hedabideekin” batera egin beharreko zereginak zehaztea		2022
Europako administrazioa	Europako laguntzak aztertzea	Europako administrazioaren eskutik etor daitezkeen laguntza aukeren azterketa egitea	Laguntza aukerak eta haien ezaugarriak biltzen dituen dokumentua bazkideei aurkeztea	2022-23
Udalbiltza	Udalbiltzarekin lankidetzan hastea	Instituzioarekiko harremanak estutzea eta lankidetzak aukerak aztertzea	Lankidetzak proiektu bat abian jartzea	2022-23
Alderdi politikoak	Alderdiekiko harremana sendotzea	Alderdi politikoekin harreman errazak edukitzeko zubiak eraikitzea eta alderdiei sektorearen azterketa eta beharrak zein diren jakinaraztea	Urtean behin gutxienez alderdi nagusiekin biltzea	2022-23
Sektore ekonomikoa	Enpresa eta ekonomia erakundeekin harremanak lantzea	Euskal komunikabideetan inbertitzeko prest egon daitezkeen sektore ekonomikoekin zubiak eraikitzea	Gutxienez bi enpresarekin harremanak edukitzea	2022-23

Esparrua	Helburua	Ekintza	Adierazlea	Urtea
Herri ekimeneko erakundeak	Herri ekimeneko erakundeekin harremanak lantzea euskararen normalizazioa bizkortzearen alde eta euskarazko komunikabideen sektorearentzat interesgarriak izan daitezkeen proiektuak sortzeko	Euskararen normalizazioa edo euskarazko komunikabideen garapena helburu duten ekintzetan parte hartzea	Herri ekimeneko erakundeek sortutako bi dinamikatan parte hartzea	2022-23
Publizitatea	Publizitate instituzional gehiago lortu euskarazko komunikabideentzat	Publizitate instituzionalaren banaketaren azterketa egitea euskal komunikabideak kontzeptu horretan jasotzen dutena zenbat den ezagutzeko erdal komunikabideek jasotzen dutenarekin alderatu ahal izateko	Azterketa lana bazkideei aurkeztea	2022

Sektorearen ezagutza

Helburua	Ekintza	Adierazlea	Urtea
Kanpo adierazleen azterketa egitea	Audientzien jarraipena egiteko sistemaren inguruko akordioa lortzea administrazioekin eta hori erabiltzen hastea	EAEko administrazioekin akordioa lortzea Behategiak egindako ekarpena oinarri hartuta	2022
	Hekimen Analytics neurtzeko tresna baloratu eta beharrezkoa balitz hobetzea	Hekimen Analytics hobetzeko ekarpenak egitea	2022
Barne adierazleen azterketa bukatu	Datutegian duela hiru urte bildutakoa ezagutaraztea eta azterketari 3 urteko maiztasuna ezartzea	Bazkideei 2019ko datuak ezagutarazi eta haien inguruko irakurketa biltzen duen dokumentua Behategiak aurkeztea	2022
	Bere garaian egindako datu bilketan oinarrituz sektorearen genero azterketa egitea	Bazkideei generoaren ikuspuntutik sektorea nola dagoen aztertzen duen dokumentua Behategiak aurkeztea zer hobetu balego proposamenak eginez	2022
Barne komunikazioa	Sektoreko langileei zuzendutako buletina digitalki hedatzen segitzea urtean hiru aldiz gutxienez	Buletinaren eta telegram kanalarekin gutxienez 100 langilerengana iristea	2022-23
	Telegram kanala sortzea sektoreko langileentzat interesekoak diren gaiak komunikatzeko		

Helburua	Ekintza	Adierazlea	Urtea
Kanpo komunikazioa	Sare sozialetan Hekimenek duen garrantzia lantzea kalitatezko edukiekin	Sare sozialetan Hekimenek duen presentzia handitzea elkarteak ekoizitako edukiak %20 direla	2022-23
	Behategiaren eskutik urtekaria aurkeztea	Urtekariaren edukiak ezagutarazteko hiru komunikazio saio egitea	
	Hekimenen urteko ekintzak komunikatzeko plangintza egitea, Batzarrak, gogoeta saioak eta abar	Hekimenen jarduna komunikatzeko 3 saio urtean	
Antena teknologikoa	Aldaketa teknologikoa eta haren eragina eta aukerak zein izango diren aurreikusteko lana egitea. Urtean zehar komunikabideei eragingo dieten aldaketa teknologikoei buruz hausnartzeko goiz bateko 2 saio egitea	Saio bakoitzea 20 langilek parte hartzea	2022-23
Gogoeta etengabea	Gogoeta estrategiko etengabea egiten lagunduko digun diziplina arteko lantaldea osatzea aholkulari gisa beharren arabera	Urtean behin gutxienez, gogoeta estrategikoa eragiten duen dokumentu bat bazkideei aurkeztea	2022-23
Formakuntza	Formakuntza beharrak zein diren ezagutzeko inkesta egitea	Inkestaren emaitza bazkideei aurkeztea	2022
	Komunikabideek aurreikusitako formakuntza saioen berri biltzen duen agenda sortzea beste komunikabide batzuk aukerak baliatzeko hala badagokio.	Lehentasunen arabera gutxienez urtean behin formakuntza saio bat egitea	2022-23
	Agenda bestalde, formakuntza sektoreak dituen hutsuneak ezagutzeko ere balioko du.		

Ekintza bateratua

Helburua	Ekintza	Adierazlea	Urtea
Elkarlanean egitasmoak sustatzea	Hekimeneko bazkide bat baino gehiago barnebiltzen dituen proiektu bat sortzen laguntzea	Proiektuaren egitasmoaren lanketa abiatzea	2022-23
	EAEen berrikuntza oinarri duen proiektu berria sor dadin eta diruz lagundua izan dadin eragitea	Proiektuaren lanketa abiatzea	2022-23
	Eusmeroteka abian jartzea, elikatzea eta erabiltzen hastea	Hekimeneko bazkideen %20k Eusmeroteka erabiltzea	2022
Hekimenen 10. Urteurrena	10. Urteurrena ospatzeko ekintza plana egin eta burutu sektorearen lana balioan jartzeko	Antolatzen diren ekitaldietan bazkideen %80ak parte hartzea	2022
Barne kohesioa	Plan estrategikoa kudeatzeko antolaketa eta funtzionamendu eraginkorra zehaztu zuzendaritzatik harago gai zehatzen inguruko proiektuak lantzeko	Zuzendaritzaren osaera Berria zehaztu eta lan talde sektorialak osatzea	2022
	Bazkide berriak erakartzeko lan egitea	2 bazkide berri lortzea	2022-23
	Kode deontologikoa deiturikoaren segimendua egitea	Hekimeneko bazkideen artean zabaltzea	2022